



EBAZPENA, 2023ko apirilaren 11ko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, EAEko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara ematen duen zuzendari beraren 2023ko otsailaren 3ko ebazpenaren akatsak zuzentzen dituen.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 3ko ebazpenaren bidez argitara eman zen EAEko maisu-maistren kidegoko funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuazioa adierazten zuena.

Akats material edo egitatezko bat antzeman da JOKIN URIARTE ARAIZTEGUI parte-hartzailearen 4.3 ataleko puntuazioan.

Horregatik, eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“Administrazio Publikoek, halaber, izango dute edozein unetan, ofizioz edo interesatuen eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak zuzentzeko aukera”*. Horiek horrela, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

EBAZTEN DUT

Lehen.- JOKIN URIARTE ARAIZTEGUI parte-hartzailearen 4.3 ataleko puntuazioan atzemandako akats materiala edo egitatezkoa zuzentzea, EAEko maisu-maistren kidegoko estatu mailako 2022-2023 lekualdatze-lehiaketan, «Modalitate guztiak» izeneko zerrendan (2023ko otsailaren 7an argitaratua), honela:

Honela dio: «1,0000 puntu»

Hau esan behar du: «2,0000 puntu»

Era berean, zuzenketa horren ondorioa izango da JOKIN URIARTE ARAIZTEGUIk 2023ko otsailaren 7an argitaratutako «Modalitate guztiak» eta «Laburpena» izeneko zerrendetan lortutako puntuazio

Honela dio: «26,6996 puntu»

Hau esan behar du: «27,6996 puntu»

Bigarrena.- Interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 11a

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA